

Pues hau... afera hau de, beti Erregerena zautu dugu guk, eta azienda sartzen zelaik, denuntzietzen zuten goardek, eta bahikorleat kartzen zuzten Eugire, gero hemendik azienda emateko, berriz denuntziek pagatzen zuzten, azienten yabeak, eta ematen zuzten azientak, bakotxa bere yabeak, Baztangoak ero, frantsak ero, Balle de Anue, eo nongoak ziren azientak, hori zautu dugu guk. Eta gero, ni haurre nitzelaik, hamabi edo hamalau urte nituelaik, hemen, Otsaberri deitzen dugu guk, terreno at, eta hor egoten zien baztandar ardiek, eta gero Estaduaikin kanbietu zuten, Erdizaako mendie baztandarrek.

Hau, Otsaberri erraten dugun mendi hau, hor baziren... ta Elizondokoak, etxola, Elizondokoak ziren yabeak, eta gero, Guillermo Goenetxe ere bai, bazen berze bat Elizondokoa, hoek ere etxolak hor zuzten, Otsaberrin, eta kanbietu zuzten mendiek, eta hau pagatu zuten, Erregerena bezala goardek manejatzen zuten mendi hoi, eta baztandarrek aprobetxatzen zuten Erdizaga, han paratu zuzten beheak, hori nik zautu dut, nere denboran... ko kontue da hori, eta orai, pues haiek iduri dute bautela han dretxoa eta eugiarrek ere bai. Hori de konfliktoa, parte bat... Ta nik zautu dutena hor, iauen-iauea da, denboraz baziren etxolak mugen, Erregenekoa mugen eta Baztango mugen, beño etxol hoek artzaiak han biltzeko Baztango lurrian iten zuzten etxolak, izen balute permisoa, dretxoa izen bazuten Erregenekoa, Erregenekoa inen zuzten etxolak, eta denbora hartan bazkak azientekin, guk... bazkak erraten dugu guk, pues aprobetxatzen zuzten, beño pagatuz, beren deretxoa, ze pagati behar zuten. Hola manejatzen ziren denbora hartan. Eta gero, hordik antzine, pues, kanbietu zirelaik hoi mendi hoiek, errespetatzen ziren gehiago.

Orai e iten dire, bai, beño goardatzen zien azientak, baña deskuidatzen zena denuntzietu iten zuten. Eta hor daude mugek: Anuako muge, Erregenekoaikin, eta Baztangoaikin, eta denak, eta gero, ballea, Esteribarko Ballea ellegatzen da Sagardegiraño, Sagardegiko leporaño. Gero handik Artesiagan barna, Ollatzetan barna, Okoon barna, bueltatzen da Esteribarko balleain terrenoa. Eta hori, Esteribarko ballean baitago Eugi, guk usten dugu hemengoa izein dela lur hori, Erregenekoa zer hori. Eta bee fabrike intzelaik Olaberrin, fundizione hoi, pues, horko antzinderiek ta usetzen zuten, Erregenekoa mendie re iketza iteko fabrike lanian aitzeko. Usetzen zuten. Hor daude eskriturek, nola iten ziren, ta hori dena Eguikoa zen.

Orai guk eztugu ja ere erraten ahal gauze horren gañean, zeatik hor intzutelaik hori junta hori Balle de Errok eta Baztanek, arreglatu zirelaik Balderroindako setenta por zien eta treinta por zien Baztangoindako, eta lan hoi iteko, pues, reparto in, mankomunidan, bien akorduekin, orduen ez zuten eta mintzatu Erregenekoa aferai, eta gero, pues, hemen gu ixil-ixilik ginauden, ta gero agertu zen periodikuan, pues, kasik adjudiketuik Baztandei Erregerena.

Orduen, pues, Eguiko Aiuntamentue, pues, mugitu zen: "Bueno, hau nola da, guri yause erran gabe?", ta hara: oai hori de afera

mugitu dena, berritik. Orai, zer pasatiko den, nik hori eztakit, beño... edozein gauze pasatuik, ezpada Egui... ezpada kontatzen hori, ezta xuxenbidia.

Orai herri hau dago erdi banexa. Lenago, pantano in antzinean, hemen inguru hontan zen herriik pollitena zen hau, aberatsena, bazuen bere mendie, bazenazienda handie herri hontan eta ongi bizi zen. Orai, batzuk bizi dire, baña ez lehen bezin gustora. Len berze gauze bat zen hemen. Orai, pues, fabriken ere ai de yendea, kutse beño, gero harrubien ere bai ai de yendia, baña ezta gauze bera. Lenago Eugiko herrie ederrago zen... Gauze ederrago zen Eugiko herria, lenago, pantanoa in antzinean, ta orai, pues bada berze gauz bet, karretera in behautela hemendik Frantziera, hau ereki bihautela.

Pues, kusiko duu ze etortzen den. Eundeño karretera hoi erekitzen bada hemendik Frantziara, Eugi eztakit nola ibiliko den, zeatik auto aundiz pasatiko da eta eztuu... hori, estensioneik hemen apartatzeko, dena mendie dugu segido, ta zerbait nahi bada in, mendien kontra eztakit zer in daiteken. Inen da akaso zerbait ere, eta modifikatiko da, ta akaso bizimodu hobia torriko da, horren esperantzan, berzelaz, ezta ingresoik hemendik lehenago bezala, ta hori, Erregena oai guria usten dugu dela, eta hori ere kentzen badigute, pues, biziik ortzi behar digute, alde batetik eta bertzetik, eta nahi tugu geren dretxoak kontserbatu.

Pues éste... éste es el asunto, nosotros hemos conocido Erregerena desde siempre, y cuando entraba el ganado, los guardias lo denunciaban y lo traían a Eugi, a la cuadra para requisas, y luego para llevarse el ganado de aquí, los dueños del ganado pagaban la denuncia, y cada dueño se llevaba su ganado, ya fuera baztanés, francés o del Valle de Anue o de donde quiera que fuera el ganado, nosotros hemos conocido eso. Y luego, siendo yo niño, cuando tenía doce o catorce años, había aquí un terreno, nosotros lo llamamos Otsaberri, y ahí estaban las ovejas baztanesas, y luego los baztaneses cambiaron el monte de Erdizaga con el Estado.

A ése, a ese monte le llamamos Otsaberri, allí había... y los de Elizondo tenían una chabola, los de Elizondo eran los dueños, y también había otro de Elizondo, Guillermo Goenetxe, aquellos tenían también chabolas allí, en Otsaberri, y cambiaron los montes, y pagaron esto, los guardias llevaban ese monte como si fuera Erregerena, y los baztaneses aprovechaban Erdizaga, y llevaron allí las vacas, eso lo he conocido yo, es un asunto de mis tiempos, y ahora pues parece que ellos tienen derechos allí y que los de Eugi también los tienen. Ese es el conflicto, una parte de él... Y yo he conocido allí, principalmente, que durante bastante tiempo hubo chabolas en la muga, en la muga de Erregerena y en la muga de Baztan, pero esas chabolas las hacían los pastores baztaneses en las tierras de Baztan para juntarse allí, y si hubieran tenido permiso, si hubieran tenido derechos en Erregerena, hubieran hecho las chabolas en la parte de Erregerena, y en aquel tiempo los pastos, nosotros les llamamos *larreak*, se aprovechaban con el ganado, pero pagando por su derecho, porque de hecho tenían que pagar. Así se arreglaban en aquel tiempo. Y después, a partir de ahí, cuando ellos cambiaron aquellos montes, se respetaban más.

Ahora también se respetan, si, pero entonces guardaban el ganado, y al que se descuidaba lo denunciaban. Y ahí están las mugas: la muga de Anue con la parte de Erregerena y la de Baztan, y todas, y luego, el Valle, el Valle de Esteribar llega hasta Sagardegi, hasta el collado de Sagardegi. Luego de allí, por Artesiaga, por Ollartzeta y por Okoro da la vuelta el terreno del Valle de Esteribar. Y eso, puesto que Eugi está en el Valle de Esteribar, nosotros creemos que esa tierra, esa parte de Erregerena, debe de ser de aquí. Y cuando en Olaberri se hizo la fábrica, aquella fundición, los primeros que trabajaron allí utilizaron también el monte de Erregerena para hacer carbón para trabajar en la fábrica. Lo usaban. Ahí están las escrituras, ya sabes que se hacían escrituras, y todo eso era de Eugi.

Ahora nosotros no decimos nada de nada sobre ese asunto, porque cuando hicieron eso, la Junta aquella el Valle de Erro

y Baztan, se pusieron de acuerdo en setenta por cien para Valle de Erro y treinta por cien para los baztaneses, y para hacer ese trabajo, para hacer ese reparto en mancomunidad, con el acuerdo de los dos, no hablaron sobre el asunto de Erregerena, y luego, pues, nosotros estábamos aquí muy callados, y luego apareció en el periódico, pues, que casi se adjudicó Erregerena para Baztan.

Entonces, pues, el ayuntamiento de Eugi, pues, se movió: "Bueno, ¿cómo se ha hecho esto, sin decirnos a nosotros nada?, y fíjate, ése es el asunto que se ha movido ahora, recientemente. Ahora, yo no sé lo que pasará, pero... pase lo que pase, si Eugi... si no se tiene eso en cuenta, no es justo.

Ahora este pueblo está vacío. Antes, antes de hacer el pantano, este era el pueblo más bonito de los alrededores, el más rico, tenía su monte, había mucho ganado en este pueblo, y se vivía bien. Ahora, algunos viven bien, pero no tan a gusto como antes. Antes esto era otra cosa. Ahora, pues, hay gente trabajando en la fábrica, pocos, en la cantera también trabaja gente, pero no es lo mismo. Antes el pueblo de Eugi era más bonito... El pueblo de Eugi era más bonito antes, antes de hacer el pantano, y ahora, pues hay otra cosa, que van a hacer carretera de aquí a Francia, que van a ensanchar esta carretera.

Pues, ya veremos lo que pasa. Si algún día se abre esa carretera de aquí a Francia, no sé como andará Eugi, porque pasarán muchos coches y no tenemos... eso, extensión para aparcar aquí, tenemos enseguida el monte, y si se quiere hacer algo, no sé que se puede hacer contra el monte. Se hará quizás algo, y se modificará, y quizás vendrá un modo de vida mejor, eso esperamos, si no, no hay aquí ingresos como antes, y eso, Erregerena creemos ahora que es nuestro, y si también nos quitan eso, pues, nos tendrán que enterrar vivos, de un lado y del otro, y queremos conservar nuestros derechos.